BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3703

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 24koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, antzerki-produkziorako laguntzak emateko Balorazio Batzordearen batzarkideak izendatzen dituena eta Batzordearen osaera argitaratzen duena.

Ikusi da Kulturako sailburuaren 2011ko maiatzaren 12ko Agindua, hots, antzerki-produkziorako laguntzak emateko araudia ezartzen duena.

Kontuan izan da 2011ko maiatzaren 12ko Aginduaren 8. artikuluak aipaturiko dirulaguntzak emateko balorazio batzorde bat osatuko dela eta batzorde horren batzarkideak izendatzea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpen bidez emango dela jasotzen duela.

honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Antzerki produkziorako laguntzak emateko osatuko den Balorazio Batzordearen batzarkideak izendatzea eta Batzorde horren osaera argitaratzea. Beraz, Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: Mikel Toral López jauna (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzarkideak:

– Ana María López Asensio anderea.

– Amaia Ibáñez Zalba anderea.

– Araceli de la Horra Gutiérrez anderea.

– Miriam Martín Prieto anderea.

– Carlos Morán Arostegui jauna.

– Jesús Eusebio Rodríguez Fernández jauna.

– Marta Monfort Ayestaran anderea.

Idazkaria: José Luis Ibarzabal Eguibar jauna (Kultura Saileko teknikaria).

Bigarrena.– Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 24a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.